

PRUEBA DE ACCESO A LA UNIVERSIDAD
MAYORES DE 25 Y 45 AÑOS

PROBA OROKORRA

2018ko PROBA



EUSKARA

PROBA

ERANTZUNAK





Argibideak

Galdera bakoitzaren ondoren dator bere balioa.

Irakurri testu hau eta erantzun testuaren ostean datozen galderei.

Esnatu eta oraindik adurra darizula, besoa ahal bezala ondoko ohe-mahaira jaurti eta iratzargailu demonioa gelditzen duzu —gaitz erdi!—. Hurrengo pausoa? Bai, beso baldar bera, kanabera bat balitz bezala, mahaira jaurtitzea, ea sakelakoak tenk egiten duen. Behin mugitzen ez den objektu bat arrantzatuta —kostata, gainera—, azken pauso xebrera iristen zara: segapotoa zure parean desblokeatzea eta begiak trepeta ahalguztidunaren argi itsugarriari ohitzea. Lehenengo begi bakar batekin begiratzen duzu pantaila; gero argitasuna jaisten duzu; eta, azkenean, zerbait irakurtzeko gai zara, bejondeizula!

Orain ez ezazu ez jakinarena egin: erritual hori zure egunerokotasunaren zatia da; ondo ezagutzen duzu. Gaztea bazara ez duzu aitzakiarik; egunero egiten duzu. Baina, trankil, lagun! Normala da: sare sozialen artaldeko arkumetxo bat gehiago zara.

Eta ez dakizu zein mementotan sartu zinen artalde horretan; duela ez hainbeste lasai asko zenbiltzan zure belardian bazkatzen. Orain, aldiz, sare sozialen belardi zabalean bazkatzen duzu. Arratsaldero zure Instagramean itxurakeriatan zabilta —gaztelaniako “postureo” delako hitza baino askoz ere jator eta zehatzagoa dugu euskaran, eskerrak!—, eta besteen oniritziaren zale amorratua zara.

Are gehiago, sare sozialen artaldean sartu zinetik zure bizitza zeharo aldatu da. Gogoan duzu nola ezagutu zenuen Miren? Bai, Mirentxu, zure neska-laguna! Non eta Twitterren, motel! Hainbeste “gogoko dut” ematen zizkizun neska hura zen, ostegun-gau batean harekin bukatu zenuen arte. Baina lasai berriro; agidanez, egun, sare sozialen bidez ligatzen da. Zure artaldekideek berdina egiten dute: ez zara ardi beltza.

Eta orain sekretu bat kontatuko dizut; hurbildu belarria eta ez esan txintik ere beste arditxoei: ez dago ardi beltzik. Guztiok zure artaldearen parte gara. Horregatik, jai duzu ardi beltzak bilatzen; akaso, ardi grisen bat aurki dezakezu. Ardi grisak ez dira sare sozialen zale sutsuak, baina ez dute diktadura honen atzaparretatik ihes egiterik. Azken batean, ardi horiek grisak dira Facebookik edo Twitterrik ez izan arren, gauero bideo gogaikarriren bat bidaltzen dizutelako Whatsapp bidez.



Besterik gabe, sare sozialen menpekoak gara. Eta gaurkoan ez dut menpekotasun horren eraginaren inguruan hitz egin nahi, ez baitut oso argi egoera honek **zer aurki eta zer ifrentzu** dituen. Baina inolako zalantzarik gabe esan dezaket sare sozialen menpe gaudela, eta hori ukatzen dutenak, hain zuzen, sare sozialen artaldean gehien bazkatzen duten arkume itsuak dira.

Xabi Madorran / 2017-10-09 (ZU ZEU)

GALDERAK

1. Testua sortu den egoera komunikatiboaren ezaugarriak deskribatu (igorlea, hartzailea, testu-tipoa, testu-generoa, erabilera-eremua, helburua...) eta arrazoitu erantzuna. (1 puntu)

2. Laburtu zeure hitzekin lehen paragrafoan idazleak kontatzen duena. (1 puntu)

3. Testuaren arabera, egiazkoak (E) ala gezurrezkoak (G) dira baieztapen hauek? Idatzi ondoan. (1 puntu). Zuzendu gezurrezkoak diren esaldiak edo esan zergatik diren okerrak. (1 puntu)

1. Pertsonen arteko harremanak sare sozialen bidez egin eta desegiten dira gaur egun.
2. Ardi beltzak dira sare sozialen menpekotasunetik ihes egiten dutenak.
3. Ardi beltza izatea ezaugarri positibo gisa ageri da testuan.
4. Begi onez ikusten ditu ardi grisak idazleak.
5. Badira zenbait pertsona, kostata ere, sare sozialen menpe ez daudenak.
6. Sare sozialetan egotea diktadura da idazlearen iritziz.
7. Idazleak ez du egoera honen alderdi positiboez eta negatiboez hitz egin nahi.
8. Idazlearen iritziaren kontra daudenak dira txarrenak, ez dute errealitatea ikusten, artaldean daude baina ez dute hori ikusten.

4. Zein da testuaren ideia nagusia? (1 puntu)



5. Zer helburu du idazleak? (0,5 puntu)

- A. Azaltzea berak bizi duen sare sozialekiko menpekotasuna.
- B. Deskribatzea zer-nolako eragina duten sare sozialek.
- C. Gizartean gertatzen ari den egoera bat ikusaraztea.
- D. Sare sozialek eragindakoa konpontzeko bideak aurreikustea.

6. Izenburua ezabatu diogu testuari. Testuak helarazi nahi duen ideia nagusia ikusita, zein da izenbururik egokiena? (0,5 ptu.)

- A. Sare sozialen kalteak.
- B. Artaldeak.
- C. Sare sozialak: Instagram, Whatsapp, Facebook.
- D. Sare sozialen artaldean

7. Zer adierazi nahi du idazleak honako esapide hauekin? Azaldu zeure hitzekin.

(Esapideak testuan dituzu azpimarratuta). (1,5 puntu)

- *trepeta ahalguztiduna*
- *ez jakinarena egin*
- *itxurakeriatan zabilta*
- *besteen oniritziaren zale amorratua zara*
- *jai duzu*

8. Lotu testuan nabarmenduta dituzun esapide hauek beren esanahiarekin. Idatzi bakoitza dagokion esanahiaren ondoan (0,5 puntu)

Esapideak: Gaitz erdi!, Bejoindeizula!, akaso, agidanez, zer aurki eta zer infrentzu.

1. Hala ematen du, dirudienez, diotenez..._____
2. Oihal, ehun, domina, txanponetan etab.etan, aurreko aldea eta atzeko aldea, alde positiboa eta alde negatiboa. _____
3. Gertaera bat uste bezain okerra ez dela adierazteko esapidea.

4. Beharbada, agian... _____
5. Zerbait onuragarri gertatu zaizulako onespena adierazteko esapidea. _____

9. Berridatzi honako perpaus hauek parentesi artean dagoen elementua erabiliz.

(0,5 puntu)



EBAZPENA EUSKARA (2018ko maiatza)

GALDEREN ERANTZUNAK

1.

Erabilera eremuari dagokionez, gizarte-komunikabideetako testua da; egunkari edo aldizkari batean argitaratutako argudio testua, iritzi-artikulua da, hain zuzen ere. Testuak narrazio txatala du, 1. paragrafoa, non idazleak gaur egungo gizaki modernoaren egunerokotasunaren adibide bat ematen duen bere tesia indartzeko. Tesia etengabe errepikatzen da paragrafoz paragrafo, eta azken paragrafoan indarrez berresten da: sare sozialetan kateaturik bizi gara denok, artaldeko partaide gara: arditxoak, arkumetxoak, ardi grisak eta arkumeitsuak... Ez dago ardi beltzik diktadura horren petik ateratzen denik.

Igorlea, X. Marrodan dugu eta publiko zabalari zuzentzen zaio. Horregatik, hizkera hurbila eta denek ulertzeko modukoa darabil, ironia eta hitz jokoak baliatuz. Testuan, bestalde, bigarren pertsonaren erabilera azpimarratu daiteke, hurbiltasuna lortzeko eta irakurleari erreferentzia pertsonala egiteko, denok baikara mezu horren hartzaile, inork ez baitu ihes egiten berak azpimarratu nahi duen ideiatik. Irakurleari zuzenean idaztean, zuri, hain zuzen, testuak berebiziko indarra hartzen du.

2.

Egunero, esnatzen garenean, erdi lo gaudela egiten ditugun mugimendu ia automatikoak, inkontzienteak deskribatzen ditu. Gaur egun, egiten dugun lehen gauzarik inportanteena, beste ezeren aurretik, eskuko telefonoa bilatu eta pantaila piztea da eta horrek zorientasun sentrazioa ematen digu, lasai sentiarazten gaitu.



3.

| | E | G |
|--|----------|----------|
| 1. Pertsonen arteko harremanak sare sozialen bidez egin eta desegiten dira gaur egun. | X | |
| 2. Ardi beltzak dira sare sozialen menpekotasunetik ihes egiten dutenak | X | |
| 3. Ardi beltza izatea ezaugarri positibo gisa ageri da testuan. | X | |
| 4. Begi onez ikusten ditu ardi grisak idazleak | | X |
| 5. Badira zenbait pertsona, kostata ere, sare sozialen menpe ez daudenak | | X |
| 6. Sare sozialetan egotea diktadura da idazlearen iritziz. | X | |
| 7. Idazleak ez du egoera honen alderdi positiboez eta negatiboez hitz egin nahi. | X | |
| 8. Idazlearen iritziaren kontra daudenak dira txarrenak, ez dute errealitatea ikusten, artaldean daude eta ez dute hori ikusten. | X | |

Zuzendu hemen baieztapen okerrak:

4. Ardi grisek bideo gogaikarriak bidaltzen dituzte, ez dute Facebook edo Twitter baina Whatssapp-a bai. Eurek ere artaldean daude sartuta.
5. Ez dago ardi beltzik, ez dago diktadura horren petik atera denik. Gainera, azken paragrafoan dio horrelakorik uste dutenakitsuak direla. Ez dute errealitatea ikusi nahi.

4.

(Hauetako baten bat edo hautakoen ildotik garatutako ideiak balekoak izan daitezke)

Denok ala denok gaude sare sozialetan eta artalde bat eratzen dugu / Ez dago gaur egun sare sozialen atzaparretatik ihes egiten duenik, denok gaude bertan / Sare sozialekiko menpekotasun handiagoa edo txikiagoa izan dezakegu baina, ardiak bezala elkarrekin gaude artalde bat eratzen eta ez du inork handik ihes egingo.



5.

- A. Azaltzea berak bizi duen sare sozialekiko menpekotasuna.
- B. Deskribatzea zer-nolako eragina duten sare sozialek.
- C. **Gizartean gertatzen ari den egoera bat ikusaraztea.**
- D. Sare sozialek eragindakoa konpontzeko bideak aurreikustea.

6.

- A. Sare sozialen kalteak.
- B. Artaldeak.
- C. Sare sozialak: Instagram, Whatssapp, Facebook.
- D. **Sare sozialen artaldean.**

7.

- **trepeta ahalguztiduna (1. paragrafoan)**

Eskuko telefonoari buruz ari da, tresna guztiz ahalduna, boteretsua dela esateko darabilen metafora da.

- **ez jakinarena egin**

Jakin dakien arren, ezer jakingo ez balu bezala jokatzeko. Entzungor egin, tontoarena egin...

- **itxurakeriatan zabilta**

Itxurak egiten dituzu, zu ez zaren modukoa jendearen aurrean azaltzen, argazkirik politenak eta errealak izatetik urrun samar daudenak sarean erakusten...

- **besteen oniritziaren zale amorratua zara**

Denok behar dugu besteek onartuak izatea; hala, sare sozialek behartzen gaituzte besteek onartuak izatera eta hori beharrezana bihurtu da eta lortu behareko helmuga askorentzat.

- **jai duzu**

Alferrik ahaleginduko zara, ez duzu ezer lortuko.



8.

| Esanahia | Esapidea |
|--|-----------------------------------|
| Hala ematen du, dirudienez, diotenez... | agidanez |
| Oihal, ehun, domina, txanponetan etab.etan, aurreko aldea eta atzeko aldea, alde positiboa eta alde negatiboa. | zer aurki eta zer ifrentzu |
| Gertaera bat uste bezain okerra ez dela adierazteko esapidea. | Gaitz erdi! |
| Beharbada, agian. | akaso |
| Zerbait onuragarri gertatu zaizulako onespina adierazteko esapidea. | Bejondeizula! |

9.

- Normala da, sare sozialen artaldeko arkumetxo bat gehiago **baitzara**.
- Ardi grisak sare sozialen zale sutsuak **ez diren arren**, ez dute diktadura honen atzaparretatik ihes egiterik.

10.

Atal hau zuzentzeko, honako irizpide hauek eta kalifikazioen ponderazioa hartuko dira kontuan:

- Eskatutakoaren betetze-maila (hitz kopurua, galderari erantzun izana, iritzia adieraztea...). 0,3 ptu.
- Ideien garapena eta koherentzia (ideiak elkarri lotuta, kontraesanik gabe adierazita, errepikapenik gabe...). 0,4 ptu.
- Perpausen arteko loturak (lokailuak, hitzen ordena eta puntuazioa) 0,4 ptu.
- Testuaren zuzentasun morfosintaktikoa eta ortografikoa. 0,4 ptu.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK 25 URTETIK GORAKOAK

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

2018ko MAIATZA

MAYO 2018

EUSKARA

EUSKARA

GALDEREN ETA EZAGUTZA ADIERAZLEEN ARTEKO HARREMANA

| GALDERA | EZAGUTZA ADIERAZLEAK |
|----------|--|
| 1 | 3.4. Esparru honen berezko testuen ezaugarri testuingurukoak eta horien formatua antzematea. |
| 3, 4, 5 | 3.1. Gizarte komunikabideetako testu idatzizkoak ulertzea eta horien asmoa eta xedea antzematea. |
| 2 | 2.5. Testu baten ideiak laburtzea 3.3. Multzo honen berezko testuetan arlo akademikorako garrantzizkoak diren informazioak interpretatzea |
| 6,7,8, 9 | 3.4. Esparru honen berezko testuen ezaugarri testuingurukoak, diskurtsiboak eta hizkuntzakoak (lexikoak), eta horien formatua antzematea. |
| 10 | 3.5. Idatzizko testu egokiak, koherenteak, kohesionatuak eta zuzenak sortzea |